



# Hondakinen PREBENTZIOAN ELKARREKIN


%100 paper birziklatua



## SARRERA

Azken urteotan hondakinek gure osasuna, ingurumena eta klima-aldaketa baldintzatu dute. Erreterian hondakinen %32 inguru gaika biltzen den arren (2013), gainerakoa, hau da, edukiontzi berdean jasotzen dena (%68), Gipuzkoako zabortegetara bideratzen da. Halere, edukiontzi berdean, zaborraz gain, birziklagarriak diren hondakin-kopuru handia botatzen dugula ohartu gara: gure zabor-poltsaren %90-95 hondakin birziklagarriak dira, eta %5-10 errefusa.

### Erretereriako zabor poltsaren ezaugarritzea (2014)



Errenteriako Udala jakitun da hondakinen arazoari heltzeko Prebentzioa neurririk hoberena dela. Eta hala zehazten du Europako 2008/98/CE Zuzentarauak eta berau garatzen duen Hondakinen eta lurzoru kutsatuen 22/2011 Legeak ere.

Eskuartean duzun liburuxka honetan Errenteriako Udalak osatutako Hiri-hondakin Solidoen Prebentzio-plana aurkezten dizugu, zeinak honako 7 esparru nagusi kontuan hartzen dituen:

1. Konpostatzearen kultura
2. Hondakinik gabeko erosketa
3. Elikadura solidarioa
4. Sentsibilizazioa, informazioa eta kontzientziazioa
5. Arlo ezberdinen arteko prebentzioa
6. Hondakinen berrerabilpena
7. Hondakinik gabeko jai eta ekitaldiak



+ info:

943 449 603

[ingurumena@errenteria.eus](mailto:ingurumena@errenteria.eus)

[ingurumena.errenteria.eus](http://ingurumena.errenteria.eus)

**ERRETERIAKO UDALA**

## HONDAKINAK NOLA MURRIZTU?

Etxean geroz eta hondakin gehiago sortzen dugu. Honatx hondakin-kopurua murrizteko hamar aholku:

1. **Hondakin organikoak konpostatu:** zure zabor-poltsaren %40tik gora kalitateko konpost bilakatu ezazu. Kaleko edukiontzi marroian ere zure zati organikoa utzi dezakezu. Une honetan 85 familia ari dira etxean konpostatzen eta, beste 80, 5 guneetan auzo-konposta egiten: Agustinak, Fanderia, Alaberga, Gaztaino (2 gune). Izena eman Udalean.
2. **Ez erosi bilgarririk:** saiatu bilgarri gutxiko produktuak erosten.
3. **Soltean hobe:** lekaleak, laranja eta beste hamaika produktu soltean erosi ditzakegu, modu honetan bilgarriak ekidinez.
4. **Bertako ekoizleei erosi:** herriko azoketan kalitatezko produktuak erosteaz gain, hondakinak ere murriztuko dituzu: Xabier Olaskoaga plazako nekazariak tokiko produktuak eta bilgarri gabeak saltzen dituzte. Esnea bertako makinan erosiz briken sorrera ekidindo duzu.



5. **Zure ontzi edo poltsak erabili:** erosketak egiterakoan, plastiko edo paperezko poltsak erabili ordez, produktuak zure orgatxoan edo telazko poltsan eraman. Harategi eta arrandegiko erosketak tupeurretan gordez, bertako bilgarria ekidingo duzu.
6. **Erabilera bakarra ekidin:** mukizapiak, bizarra mozteko tresnak, ospakizunetako ontziteria, ... Merkatuan behin erabili eta botatzeko produktu ugari daude. Hauen erabilera saihestuz, hondakinak murriztuko dituzu.
7. **Bota aurretik konpondu:** hainbat tresna edo arropa, bota egiten ditugu konpontzeko aukera izan arren. Herriko hainbat dendetan horiek konpontzeko aukera duzu, hondakinak murrizteaz gain, dirua ere aurreztuz.
8. **Bezperako hondarrak, biharamuneko jaki:** astean zehar janari asko botatzen dugu zakarrontzira. Etxeko hozkailuan aurreko egunetako janari hondarrak badituzu, hurrengo eguneko menuan sartu ditzakezu. Elikagai soberakinak ere plater osasuntsuak osatzeko balia ditzakezu.
9. **Berrerabilpena praktikatu:** hondakin bihurtu aurretik, objektuei beste erabilpen bat eman diezaiekezun aztertu: freskagarri latak arkatzak gordetzeko, kafe kapsulak belarritakoak edo lepokoak

egiteko, ... Bigarren eskuko azokak hainbat produkturi bigarren bizia emateko toki paregabeak dira: Errenterian, Zumardian, hileko 3. igandean ospatzen dira.

10. **Prebentzio solidarioa:** behar ez duzun edo txiki geratzen zaizun arropa ez bota. Lagun bati naiz Gobernu Kanpoko Erakunde bati eman, edo berrerabilpen puntu batera eraman. Seme-alaben eskolako materiala ere ondorengoei utz diezaiekezu.



# HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN PREBENTZIO-PLANA (Ildo/Programa/Ekintzak)

## I. Udalerri mailan biohondakina murriztea

### Biohondakinak konposta egiteko baliatzea

- Autokonposta ekimena zabaltzea
- Auzo-konposterako eremuak sortzen jarraitzea
- Landa eremuan bizi direnentzako biohondakina konpostatzeko erraztasunak ezartzea
- Ondoren konpostatu ahal izateko, materia organikoaren gaikako bilketa bermatuko duen HHSen bilketarako sistema ezartzea
- Udal-jabetzako eraikinetako biohondakina biltzea eta tokian bertan konpostatzea
- Udalak kudeatzen dituen eremuetan egindako lorezaintza eta inausketa-lanetako biohondakinak konposta egiteko erabiltzea

- Baratza-parkean sortutako materia organikoaren konpostajea bultzatzea, ondoren baratzean bertan ongarri gisa erabil dadin
- Beraien biohondakina modu egokian gaika banatu edo/eta kudeatzen duten pertsoneri hobari fiskalen bidez saritzea

### Iraungitzen diren produktuak berreskuratzea

- Denda eta azalera handiko merkatal guneekin hitzarmenak bilatu gizarte ekimen ezberdinetara zuzendutako elikagaien ematea ahalbidetzeko
- Komertzioekin lanketa egitea iraungitzeaz dauden produktuak prezio merkeagoan saldu ditzaten



## 2. Ontzien eta bilgarrien bolumena murriztea

### Produktuen garraiorako berrerabili daitezkeen elementuen erabilpena sustatzea

- Harategi eta arrandegietan erosketa egiteko tupperren erabilera sustatzea
- Hiriko taberna, jatetxe eta udal-egoitzekin akordioak bilatzea plastikozko urbotilak erabili ordez, hauek iturriko urez betetako kristalezko ur-pitxarreatatik ordezkatzeko
- Ohiko plastikozko poltsen ordez, erosketetarako poltsa berrerabilgarrien edo orgatxoaren erabilera sustatzea
- Aldiro-aldiri, Udalak tupper, oihalezko poltsa edo bestelakoak herritarren artean banatzea

### Kontsumo arduratsua sustatzea

- Soltean saltzen diren produktuen erosketa bultzatzea
- Baserritarren azokak hiriko auzo ezberdinetara zabaltzea, bertan ekoiztutako produktua, osasuntsua eta bilgarririk gabekoa dena hiritarrei hurbiltzeko
- Bertan ekoiztutako produktuen salmentarako *vending* makinak hiriko eremu ezberdinetara zabaltzea





- Kontsumo Taldea bezalako ekimenak herritarren artean bultzatzea
- Hiriko taberna eta jatetxeetan bertan ekoiztutako produktuen erabilera sustatzea
- Garaian garaiko tokiko produktuen gida bat argitaratzea
- Tokiko industria edo ekonomia-sektoreari ekodiseinuaren eta ekoeraginkortasunean abiatu daitezkeen laguntzea

### 3. Festa eta ekitaldietan sortzen den hondakin-kopurua murriztea

- Hiriko auzo ezberdinetako jai-batzordeekin elkarlanean, erabilera bakarreko edalontzi eta bestelako ontziteria berrerabili daitekeenarengatik ordezkatzeko, Udaleko diru-laguntzetara lotuz
- Jai eta ekitaldietan freskagarri-laten erabilera gutxitzea, hauek beirazko ontzi edo kupelengatik ordezkatzuz
- Jai zein ekitaldi gastronomikoetan sortzen den biohondakinaren konpostatzea erraztea

### 4. Udalaren izaera eredu-garria sustatzea

#### **Vending motako makinetako hondakinak gutxitzea**

- Kafe eta ur-makinetako erabilera bakarreko plastikozko edalontziak kentzea, norberaren edalontzi berrerabilgarria erabiltzeko aukera emanez
- *Vending* makinetako produktuak bilgarri gutxiago dituzten produktuengatik ordezkatu daitezkeen bultzatzea



### **Bulego iraunkorren kontzeptua zabaltzea**


- Bulegorako materiala erosterakoan, iraunkortasunerako irizpideak eta hondakinen murrizketarako irizpideak barneratzea
- Aurpegi batetatik soilik erabilitako orrien aprobetxamendua zabaltzea
- Inprimagailuak egokitzea toner-aurrezpena eta bi aldeetako inpresioak egitea lehenetsi ditzaten
- Posta arrunta posta elektronikoa eragatik ordezkatzeko aukera aztertzea
- Eskuak lehortzeko paperezko eskuzapiak haize-lehor-gailuengatik ordezkatzea

### **5. Hondakinen sorrera murrizteko sentsibilizazioa**

#### **Hiriko biztanle sektore ezberdinei zuzendutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jarduerak burutzea**

- Hondakinak murrizteko praktika onen gida bat osatzea webaren edo posta elektronikoa erabiliz zabaltzeko
- Hiri-hondakin solidoen prebentzioari zuzendutako sentsibilizazio- eta formazio-kanpainak antolatzea

- Auzo konposteguneetara bisita gidatuak antolatzea (ikasleentzat, etab.) bertako funtzionamendua, emaitzak eta eboluzioa ezagutzeko
- Hondakinen prebentzio eta berrerabilpena helburu duen elkarte, enpresa eta tokiko erakundeei zuzendutako dirulaguntza lerro bat mantentzea
- Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin urtero bat egiten jarraitzea
- Herritarren artean Elikadura Kontzientea sustatzea
- Praktika onak eta eredu garriak jendarteratu, ikusiz ikasteko
- Pixoihal berrerabilgarriak sustatu



## Hiritarrekiko komunikazioa hobetzea

- Hiritarren partaidetza hobetu asmoz, Udaletik antolatutako kanpainen edo ekimenen berri nahikoa denbora tartearekin ematea
- Hiritarrei zuzendutako komunikazioa hobetzea, batez ere Udalak burututako ekimenen berri ematerakoan
- Autokonposta eta auzo-konpostaguneetako emaitzak eta bertan parte hartzen dutenen esperientziak ezagutaraztea, bai webaren, bai tokiko hedabideen bitartez
- Udalerriko biztanleen hondakinen gaiari lotuta izan ditzaketen zalantzak argitzeko informazio-telefono edo e-posta bat ezartzea
- Eskolako Agenda 21 proiektua hondakinen arazoari aurre egiteko baliabide gisa kontuan izatea

## 6. Berrerabilpena erraztea

### Partekatzeko eta berrerabiltzeko espazioak sortzea

- Hirian mikro-garbiguneen sorrera aztertzea, hiritarrek bertan hondakinak utzi edo bertan daudenak berrerabiltzeko aukera izan dezaten
- “Hotzliburutegiak” hiriko eremu ludikoetan ezartzea, hiritarrek nahi duten unean aldizkari eta liburuak utzi edo hartzeko aukera izan dezaten
- Bigarren eskuko azokak sustatzea
- Udal-webgunean objektu ezberdinak non konpon daitezkeen jasotzen duen atal bat txertatzea
- Hondakinak birgaitzeko/konpontzeko guneak sortzea
- Tamaina handiko hondakinen atez ateko bilketarako akordioak bilatzea, bai kontratatutako zerbitzu-enpresarekin, bai EMAUS fundazioarekin (edo antzekoekin)